



Txurriategi zutik baina hutsik, 1991n. J. Tellabide

TXURRIATEGI_{RI}

AZKEN AGURRA

Urumearen ertzean, Astigarragako mugalerrotik metro gutxira egonagatik, Donostiako Martutene auzokoa da Txurriategi baserria. Urumeako erribera emankorren erdian kokatua, garai bateko etxe eder eta jarduera handikoa zena, kanpoko lau paretak ozta-ozta zutik dituen hondakin multzoa besterik ez da gaur egun. XVII. mendean jada dokumentatua dagoen etxeak, XXI.aren hasieran eman du azken hatsa. Hori dela eta, jarraian lerro batzuk eskainiko dizkiogu Txurriategiri, agur moduan; era berean baserri horretako alaba den Juanita Txintxurretaren eskutik jasotako errioarekin lotutako hainbat kontu azalduko ditugu.

Txurriategi egun Martutene auzokoa bada ere, Juanita haurra zenean Amara zen hura, Beheko Amara, edo Bajo Amara Juanitak dioen moduan. Amona zuen bertakoa, Modesta Arregi, eta bertara ezkondu zen aitona, Sebastian Txintxurreta, jatorriz Andoaingo Arrantzu baserrikoa. Bertako semea zen aita; ama, berriz, Petrategiko alaba. 1932an jaio zen Juanita, eta bi senide izan zituen, eurretako bat, anaiordekoa, Fraisorotik ekarria. Jaiotzez Amarakoa izanagatik

eliza kontuetan beti izan dute Txurriategikoek Astigarragara joera. Hala, Astigarragan bataiatu eta ezkondu zen, eta gaur egun, bizi ere bertan bizi da.

Zenbat bider igaroko ginen Portutxoko biribilgunetik, erriberen gain, Urumeako autobidea daraman bidezubitik, hegan, behean dugunean erreparatzeko astirik gabe? Han darraite, sasi artean ezkutaturik Txurriategiko aurriak.